

B

BARREN

TOKIKOM

Eman pausoa

Martxoak 8



ELGOIBAR - 899. zenb. - XXI urtea - 2013-03-07



Eskertzak eta urteurrenak



ESKERTZA

JOSE MARI LARRAÑAGA ARRIZABALAGA

*Gure anaia, koinatua eta osaba, Jose Mari.
Ez dugu sekula ahaztuko elkarri emandako maitasuna.*

Mila esker ondoan izan zaituztegunoi.

Familiakoak



2014ko otsailaren 28an hil zen



I. URTEURRENA

IÑAKI ARGARATE IRIONDO

2013ko martxoaren 7an hil zen, 50 urte zituela.

*“Ez zaitugu gehiago ikusiko gure artean,
baina betirako egongo zara gure oroimenean”*

Zure lagunak



I. URTEURRENA

ANTONIO PUYADENA GARMENDIA

2013ko martxoaren 4an hil zen, 82 urte zituela

*Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 8,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.*

Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



ESKERTZA

MARIA IZAGIRRE URAIN

*Mundu bat erori zaigu
irribar bati lotua
balore sendoz sustraitu
eta izerdiz ondua
sortu den guztiak zor du
despedidaren ordua
luzaro mantenduko da,
baina zugandik hartua
mundu bat eman diguzu
maitasunez loratua.*

Etxekoak

*2014ko martxoaren 1ean hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





Amaia Larrañaga

Azkenaldian zeresanik ematen ari den 'Eskozia eredu ote?' jorratzekotan nator neu ere, J.Luis. Bestelakoak alde batera lagata, hizkuntza kontuei helduko diet.

Adituek diotenez, gaerakoa galzorian omen da; eskoziarren %1ek baino ez ei dute hitz egiten;

hango Alderdi Nazionalaren programan ez omen du inolako lekurik; hango Parlamentuak, 2005ean, ofizialtasuna onartu ei zion arren, ingelesa omen da jaun eta jabe; Egoera hau aintzat hartuta, ezinezkoa egiten zait ulertzea, datorren iraileko erreferendumean independente izatearen aldeko hautuak irabaz dezan, hizkuntzarekiko atxikimendua ez lehenestea, izan ere, zer da herri bat bere hizkuntzarik gabe? "Irin gabeko ogia, hegala gabeko usoa", zioen Monzonek "Bai euskarari"-n.

“Nik uste hizkuntzaren gaian ez dugula eskoziarren antzekotasunik, ezta behar ere”

Xabier Amurizak ere aspaldi idatzi zuen: Zer Euskal Herri litzake bere hizkuntza ere galtzen duena? Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena? Galdera hauen erantzunak euskaldun askok geure egin genituen, izan ere, euskararik gabe gure herriak ez luke izenik ere izango, izenak berak dio-eta "Euskal" Herria.

Nik uste euskaldunok, geure gorabehera guztiekin, euskarari diogun errespetua, maitasuna, atxikimendua... kontuan izanda, kontu honi dago-kionez ez dugula eskoziarren antzekotasunik, ezta behar ere. Honekin ez dut esan nahi hizkuntza kontuetan parekorik ez dugunik, ezta inondik ere, gu baino hobeto daudenak ere badira-eta, baina beti esaten duguna: euskarak aurrera egitea geure esku dagoela, batez ere. Azken hitz hauek ekainean euskaldunok izango dugun ekimena ekarri didate burura, *Gure esku dago* hain zuzen, geu ere eskoziarren moduan, abiatu gara-eta, baina euskaratik eta euskaraz. Zorierik onena opa diet eskoziarrei euren bidean, eta, akaso, elkarrengandik zer ikasirik izango dugunez, guk gurean ere aurrera egin dezagun, gure esku dago-eta, ezta, J.Luis?



Jose Luis Azpillaga

Bai galdera potoloa, Amaia! Egia esan, ni neu ez naiz gai sentitzen itxurazko erantzunik emateko horrelako gai baten inguruan. Horregatik, nahiago izan dut han eta hemen irakurritako gogoeta interesgarri batzuen haritik moldatu nire idatzia.

Zurea irakurrita, gogora etorri zait Xabier Zabaltza historialariak otsailaren 19ko *BERRIAN* idatzitako *Independentzia, zertarako?* artikulua. Honela zioen Zabaltzak: "Eskoziak autodeterminazio eskubidea dauka. Inork ez dio ukatzen. Baina independentzia ez da, berez, helburu bat, gauzak (eta ez bakarrik bandera) aldatzeko tresna bat baizik. SNP/PNAk nahi du Ingalaterrako erreginak segi dezan Eskoziako estatuburu izaten, liberak bertako dirua eta ingelesak hizkuntza nagusi. Eltzaur horrendako bazen lehenago harririk". Zure gogoeta ere ildo horretatik doala uste dut, eta ni ere ados nago: ez dit graziarik egiten euskararik gabeko Euskal Herri independente batek.

“Ez dit grazia handirik egiten euskararik gabeko Euskal Herri independente batek”

Handik gutxira, otsailaren 22ko *BERRIAN*, Zabaltzaren galderari erantzunez, honakoa zioen Andoni Egañak: "Ezinetik abiatuta, egin ditugu euskaldunok gauza batzuk ongi ere. Asko akaso. Ikastolen mugimendua, helduen alfabetatze-euskalduntzearena, hedabideak euskara hutsean, kooperatiben ideia, militarismoari intsumisioa, industria-ehun itxurazkoa, gaztetxeen autogestiorako urratsa, kultur-sorkuntza maila onekoa, laborantza-erantzako bide berriak asmatzea... (...) Horretarakoxe genuke independentzia. Ezinetik eta sene-tik ongi egin ditugunak hobeto garatu ahal izateko".

Eskoziarren bidea gutxietsi gabe, guk geurea egin behar dugula uste dut nik ere. Eta, zuk diozun moduan, oso garrantzitsua iruditzen zait bidea euskaratik eta euskaraz egitea. Izan ere, Atxagak hitzaldi batean zioen moduan, "Euskadi hain da txikia non ez den mapan ere ikusten, baina nik uste, mapan ikusteko, euskara izan dela iraganean oso garrantzizkoa eta etorkizunean ere izango dela".

Jarri ezazu zure publizitatea
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B
BARREN
astekarian
943 744 112

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi biZkai



Gipuzkoako Foru Aldundia



■ GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Mila esker joan zen zapatuan eta astearte arratsaldean lagundu ziguten guztiei: Txarriduna hotela, Audio Skan, Eizagirre okindegia eta gurekin batera inauteriak gozatu dituzten guztiei. Eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, Imanol Txarridunari, Eizagirre okindegiko Maialeni eta Audio Skan-eko Mikeli. Eskerrik beroena guztioi, Masai tribuaren partez.

Inauterietako Masai tribua

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



**Aita Agirre plazako estolak arrisku-
tsuak dira:** "Aita Agirre plazan estolda
berriak jarri dituzte, eta zulo handie-
giak dituzte. Ume asko patinetearekin
ibiltzen dira ingurune horretan, eta patine-
tearen gurpilak estoldan kateatzen dira. Umeak
erori eta min hartzen dute sarritan. Horrelakoak
kontuan hartu beharko liratekela uste dugu".




Espaloi gainean aparkatzen du jendeak: "Basarte
auzoan, espaloi gainean aparkatzen dute askok
autoa. Autopistako zubi azpian beti egoten dira hi-
ru bat auto espaloi gainean, oinezkoentzako bidea
oztopatzen. Beste gunen batzuetan ibiltzen dira
udaltzainak isunak jartzen, baina ingurune honeta-
ra ez dira askotan etortzen, eta badute lana he-
men ere! Badakigu Elgoibarren aparkatzea oso
zaila dela, baina arauak errespetatu egin behar di-
ra, denon hoberako izango da-eta!".



Hilerriko nitxoak husten ari dira, eta dena bistan laga dute: "Denbora ja-
kin bat pasatzen denean hilerriko nitxoak hustu egiten dituzte, ondoren-
goei lekua egiteko. Lapida eta kristala kendu dizkiete hainbat nitxori, eta
barruan dagoen guztia ikusten da, estalkia ez dagoelako ondo jarrita.
Haizearengatik edo beste zerbaitegatik estalkia zabalik dago. Familien-
tzako oso mingarria da hori, eta horrelako gaiak beste sentsibilitate ba-
tekin tratatu behar direla iruditzen zait". Udaleko arduradunekin harre-
manetan jarri gara, eta haiek esandakoaren arabera, plastiko berezi ba-
tekin ondo estalita zeuden nitxoak otsailaren 13tik. Ondorioz, esan dute
haizeak ezin izan duela hori askatu, "torlojuekin ondo josita dagoelako".
Beheko argazkia atera ahal izateko sei torloju kendu behar direla azaldu
dute arduradunek. "Litekeena da herritar horrek argazkia atera duen mo-
mentuan atseden txiki bat hartzen egon izana gu, eta horregatik aurkitu
du nitxo bistan, baina bestela gai hauek sentsibilitate handiz zaintzen
ditugu eta ondo estalita egoten da guztia".



Trenbide ingurua zikinkeriaz beteta dago: "San Rokeetik behera jaistean
lotsa ematen du trenbide ingurura begiratzeak. Dena zikin-zikin dago!
Jendeak denetik botatzen du han beheko zulora, eta jakina, trenbide in-
guru hori garbitzea ez da erraza izango. Begirune pixkat eskatu nahiko
nuke, errespetata dezagun ingurunea, mesedez".



Ikurrinari gorazarre egingo diote gaur arratsaldean, 'Geurea ikurrina' ekitaldian

19:00etan izango da ekitaldia Kalegoen plazan, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte

Geurea ikurrina' izeneko ekitaldi instituzionala egitea adostu zuten EAJk eta EHBilduk azken Udalbatzarraren Osoko Bilkuraren ezohiko batzarrean. Ikurrinari "gorazarre" egiteko ekitaldia izango dela azaldu dute antolatzaileek, eta, besteak beste, Jaime Arrese alkate zenak 1977ko urtarrilaren 19an udaletxe-ko balkoian jarri zuen estreinako ikurrina berreskuratuko dute ekitaldirako. Elgoibarko alkate Alfredo Etxeberriak jakinarazi duenez, ikurrinari gorazarre egiteaz gain, EAEko Auzitegi Nagusiak Espainiako bandera udaletxe-ko fatxada nagusian jartzeko emandako agindua salatuko dute, "zeharka bada ere".

Bi zatiko ekitaldia

19:00etan hasiko da ekitaldia, eta bi zati izango ditu: Lehenengo zatian, plaka bat ipiniko dute Kalegoen plazan,



Udaletxean ikurrina jartzea erabaki zuen udalbatzarrak. Eskuman, Jaime Arrese ikurrina jartzen.

eta bigarren zatian, berriz, Elgoibarko udaletxe-ko balkoian jarri zuten lehenengo ikurrina, koadroan sartuta, udaletxe-ko horma batean zintzilikatuko dute, pleno aretora igotzeko eskaileren albo-

an. Ikurrina 1974an legezatu zuten eta Jaime Arresek jarri zuen udaletxe-ko balkoian lehenengo aldiz 1977ko urtarrilaren 19an, bera zen-eta Elgoibarko alkatea.

Hiri hondakinen kudeaketaren harira Elgoibarko Udalak egindako balorazio positiboa kritikatu du EHBilduk

EHBilduk kontu hartu dio Elgoibarko Udalari hondakinen gaian. Joan zen astean Alfredo Etxeberria alkateak hiri hondakinen kudeaketaren inguruan egindako balorazioa gogor kritikatu du koalizioak, eta esan du hondakinen inguruko datuek alkateak emandakoaz oso bestelako errealitatea erakusten dutela: Europak 2016rako ezarritako helburutik [hondakinen %60 birziklatzea eskatzen du] "oso urrun" dagoela Elgoibar. Bi datu nabarmendu zituen joan zen astean Etxeberriak: batetik, 2013an hondakinen %34,8 bildu zela Elgoibarren gaika, eta bestetik, Elgoibarko etxebizitzaren %62tan dutela bosgarren edukiontzia.

Horren harira, EHBilduk esan du ez dagoela pozteko arrazoirik, sortzen ditugun hondakinen %80 birziklagarria izanda, "gehiena" zabartegira botatzen delako. "Elgoibartarrok inguruko herritarrek baino gehiago birziklatzen dugu, baina hondakin gehiago sortzen dugunez besteak baino zabor gehiago ari gara botatzen zabartegira", adierazi dute. Datuak ere eman dituzte: elgoibartar batek, batez beste, 424 kilo hondakin sortzen ditu, eta horietatik 284 kilo doaz zabartegira; es-

kualdeko beste herrietakoek botatzen dutena baino %11 gehiago, koalizioaren arabera.

Gaikako bilketari dagokionean aurrerapausorik ez dela egon salatu du EHBilduk, alkateak esandakoaz bestera. Debabarrenako mankomunitateak emandako datuak eskuan, Etxeberriak esan zuen urtebetean %22tik %33,46ra igo zela gaika bildutakoa, baina datuen azaleko balorazioa egitea egotzi dio koalizioak. Igoera hori hilabetez hilabete aztertuz gero, errealitatea beste bat dela adierazi dute: hau da, igoera handiena, %19tik %30era artekoa, bosgarren edukiontzia jarri eta hasierako hilabeteteetan eman zela, eta ordutik ez dela aurrera egin.

Udalak bosgarren edukiontzia harira esandakoak ere kritikatu ditu EHBilduk. Koalizioaren arabera, hondakin organikoarentzako edukiontzia dutenak barik erabiltzen dutenak hartu behar dira aintzat, eta horiek elgoibartarren %33 direla nabarmendu dute. Horren harira esan dute, bosgarren edukiontzia jarri izanak ez duela ekarri herritarrek gainerako edukiontzia ondo erabiltzea.

Hitzaldiak **Giza eskubideak**

Eguaztenean hasi ziren giza eskubideei buruzko jardunaldiak, eta datozen bi asteetan beste bi hitzaldi eskainiko dituzte: Hilaren 11n *Indarkeriaren hausturak eta bizikidetzaren berreraikitzea* hitzaldia eskainiko du Carlos Martin Beristain mediku eta psikologian doktoreak, giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei buruzko ikerketetan adituak eta Glen Cree ekimenaren koordinatzaileak. Hilaren 18an, bestalde, *Biktimak euskal gizartearen barne hartzen dituen memoria kolektiboa jorratuz* izenburupean emango du hitzaldia Andres Krakenbergerrek, Argituz elkarteko presidentek. Hitzaldi biak 19:00etan izango dira, Ikastolan. Izena emateko 943 743 700 telefonora deitu behar da.

Irudia **Ikur frankistak**



Elgoibarko Udalak Urazandi, Kalamua, Artetxe eta Iñiguez Karkizao kaleetako Frankismoko ikurrak kenduko ditu. Espainiako Kongresuak 2007an onartu zuen Memoria Historikoaren legeak sinbologia frankista kentzea ezarri zuen, baina Euskal Herriko herri eta hirietan mila ikur baino gehiago geratzen dira oraindik, tartean Elgoibarkoak. Memoria historikoa berreskuratzeko lanean diharduen Elgoibar 1936 taldeak 2008an salatu zuen ehun ikur frankista baino gehiago daudela gure herrian eta Udalari horiek kentzeko eskatu zion. Elgoibarko alkate Alfredo Etxeberriak azaldu duenez, legeak ez zielako lagatzen daude kendu gabe Frankismoko ikurrak Elgoibarren. Jaurlaritzak kaleratutako katalogo batek gure hiri eta herrietan oraindik ikus daitezkeen ikur frankistak zerrendatzen zituela azaldu du, baina horiekin zer egin zehaztu gabe. Duela bi aste Jaurlaritzatik beste dokumentu bat jaso dute ikur frankistak kentzeko gomendioekin, eta hortaz, Elgoibarren dauden ikur frankistak kentzea erabaki dute. Ikur frankistak dituzten eraikinetako bizilagunei jakinarazpenak bidaliko dizkiete lehenik, eta eurek kentzen ez badituzte udal langileek egingo dute lan hori. Kenduko den plakaren lekuan beste bat jartzeko aukera ere izango dute.

Morkaikoko gurutzea

Alfredo Etxeberriaren berbetan ikur frankista guztiekin ezin da berdin jokatu eta adibideztat Morkaiko mendiaren tontorrean dagoen gurutzea jarri du. "Askok ez dute jakingo gurutze horrek Frankismoarekin duela lotura, barneratuta daukagulako. Gainera, Jaurlaritzaren gomendioak dio ez botatzeko, baina duen karga sinbolikoa kentzeko". Alfonso Carlos de Borbon y Orleans hil zen Morkaikon 1936ko irailaren 27an, buruan tiro bat jaso ondoren. Borboidarren familiako kidea [Juan Carlos I.a erregearen osaba] Nafarroako reketean taldean ibili zen 36ko Gerran errege-alferez gisa. Morkaiko mendia pozisio gutziziatua eta garrantzitsua zen, eta hura menperatzeko bi bandoen arteko borrokan hil zuten. Bere omenez eraiki zuten Frankistek gurutzea Morkaikoko tontorrean.

Era berean, Frankismoan eginiko herriko seme kuttun izendapenak ere berrikusiko ditu Udalak. Ildo horretan, Pedro Muguruzari seme kuttun izendapena kentzeko mozioa aurkeztuko dutela aurreratu du Alfredo Etxeberriak. Alabaina, arkitekto elgoibartarraren izena daraman kaleari ez diote izena aldatuko.

Odol ateratzeak, gaur, Elgoibarren

Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi du gaur egingo direla odol ateratzeak, Elgoibarren, 18:30etik aurrera. Martxoan birritan egingo dira: gaur, eta hilaren 28an.

Bihar zortzi, hilaren 15ean, ospatuko da Elgoibarren Zuhaitz Eguna

Sargoate inguruan landatuko dituzte aurten arbolak, Zuhaitz Egunean. Morkaiko Mendizale Elkarteak egin du deia, eta jakinarazi du gehienez 40 umerentzako irteera izango dela. Beraz, komeni da interesatuek lehenbailehen ematea izena. 9:30ean elkartuko dira IMHko tenis pisten odoan, eta handik autoz egingo dute Azkaraterainoko bidea eta oinez egingo dute handik Sargoatera artekoa.

50 urtekoen bazkaria ekainaren 21ean

1964an jaio eta aurten 50 urte egingo dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute ekainaren 21ean. Facebook-en profila sortu dute *Elgoibar1964 Quintos* izenean, argazki zaharrak jaso eta informazioa konpartitzeko. Bazkarira joan nahi dutenek 60 euro ordaindu beharko dituzte, Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 20 0071129002. Informazio gehiagorako: 639 925 597 / 648 191 042 / 608 555 489. *Elgoibar1964 Quintos@yahoo.es* helbide elektronikora ere idatzi daiteke.

Sormen tailerra, martxoaren 18tik aurrera

Zerikasik sormen tailerra antolatu du Udaleko Berdintasun Sailarekin eta Haizearekin elkarlanean. Material birziklatua erabiliz, bitxiak, poltsak eta beste hainbat elementu egiten ikasiko dute, besteak beste. Martxoaren 18tik maiatzaren 27ra izango da ikastaroa, martitzenetan (17:00-20:00). Interesatuek martxoaren 12ra arte daukate izena emateko aukera. Informazio gehiago 943 144 168 telefonon edo *zerikasi@imh.es* helbidean.

LOREDI SALEGI

PSIKOLOGOA

“Emakumeak ageriko egin behar gara, dagozkigun parte-hartze eta botere kuoten jabe egiteko”

Emakumeen Nazioarteko Eguna da bihar, martxoak 8, eta horren harira, Lore-di Salegi psikologoarekin batu gara. Salegik urteak daramatza, besteak beste, Haizea emakume taldearen ekintzetan parte hartzen, urteak emakumeekin generoaz eta berdintasun aukerez gogoe-ta egiten.

Emakumez inguratuta zabitza azkeneko urteotan, dela zine foruma di-namizatzen edo eta generoari lotutako tailerrak eskaintzen. Zeintzuk dira emakumeen kezka nagusiak?

Agerikoenak kezkatzen ditu: urtero horrenbeste emakume hiltzea, tra-tu txarrak salatzen dituzten emakumeak gero eta gazteagoak izatea, nerabeekin egin diren ikerketek erakustea gaurko gizarteak lehengoak bezalako balore matxistak dituela eta ez konturatzea desberdintasunez jositako gizartean bizi direla. Azken batean, konturatzea estereotipo-ak, rolak eta gizon eta emakumeen arteko desberdintasunek bere ho-rretan jarraitzen dutela, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

Gizonezko elgoibartar bati irakurria da honako hau: “Feminismoa XX. mendearen motoreetako bat da, eta XXI. mendean oraindik egiteko dagoen iraultza”. Xabier Arakistain Montehermoso kulturuneko zuzen-diaren berbak dira. Bat zatoz? Zer da zuretzat feminismoa, eta zer zor diogu?

Xabik arrazoa dauka. XXI. mendean, eta bereziki gure herrialdean, ez-



Arg.: Anboto

jakintasun handia dago feminismoak berdintasunaren aldeko mugimendu gisa eta teoria politiko gisa izan duen eraginaren inguruan. Asko zor diogu feminismoari, balio handiko gutxieneko eskubide asko lortu ditugulako hari esker. Feminismoa ez da konstituzionalismo liberalak nazioaren zati bat bere lorpenetatik kanpo utzi zuenean sortu zen borroka prozesu hutsa; feminismoa gogoeta kritikorako eta burujabe-rako markoa da, zeinaren bitartez emakume askok –eta zenbait gizo- nek– zalantzan jartzen duten gaur gaurkoz batzuen eta besteen arte-an hierarkia-bereizgarria markatzen duten egitura politiko, juridiko eta sozialak.

Feminismoa ez da berez emakumeen onurarako kontua bakarrik, bai-na berez, askori azkurea eragiten die oraindik, baita emakume askori ere. Zein da arazoa? Terminologian dago arazoa, edo harago doa?

Gehiago batek bazterten du feminismoa, uste duelako matxismoa-ren parekoa dela. Alegia, uste duelako feministak gizonen gainetik egon nahi dugun emakumeak garena. A aberrantea eta benetan aldrebe-

sa da pentsatzea berdintasunaren aldeko borroka emakumeek gizonen kontra hasitako borroka dela. Akats larria da, ezjakintasunaren ondorioa, feminismoa emakumeak gizona gailendu nahi duen uste okerrarekin parekatzen dutenek zabaltzen dutena. Hau da, zenbait pribilegio galtzeak gizonen eskubideak galtzea dakarrela sentitzen dutenek zabaltzen duten uste okerra.

Emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna lortzeko borroka da feminismoa; ez da gizonen kontrako borroka, ideologia matxistak edo patriarkatuak ezarritako sistema milurtekoaren kontrakoa baizik. Gizon gehienek eta emakume askok ez dute pentsaera edo ideologia patriarkatua gainditu; hau ez da soilik berdintasunaren aldeko borroka. Gure egunerokoan indarrean dagoen sistema patriarkatuan, bizitzako alor guztietan behin eta berriz errepikatzen diren eskema horietan aukerak ematean datzalako feminismoa.

Emakume adituen datu basea egiteko proiektuak jaso du BERRIA egunkariaren beka. Komunikabidea gara gu ere, eta ezin ukatu tresna baliagarria izango zaigula. Gizarteko beste arloetarako irtenbidea izan daiteke?

Bai. Emakumeak ageriko egin behar gara bizitzako eremu guztietan, guk geure lekua egiteko eta gure parte-hartze eta botere kuoten jabe egiteko.

Hizkuntza bitarra da gurea: emakumeak eta gizonak ditugu, onak eta txarrak, indartsuak eta ahulak...Bateko eta bestekoak daudela, lortu daiteke benetako parekidetasuna?

Ezberdintasunetik lortu daiteke berdintasuna, gure helburua ez baita berdinak izatea, ezberdina izan arren eskubide eta aukera berdinak izatea baizik; emakumeei lotutako ezaugarriek ez dutelako zertan konnotazio negatiborik izan. Egin diren ikerketek gure aldeko datu asko azaleratu dituzte: espediente akademikoetan, lidergo-gaitasunean...

Arriskua zera da: orain arte eurenak izan diren esparruetan borrokatzea tokatzen zaigunean haien antza izan nahi izatea, eta hor, goikarguetan eta mundu lehiakor horretan, zailagoa daukagu. Hala ere, gure ahalmenetik eta generoak ematen digun bereizgarritik daukagun agintzeko gaitasuna oso positiboki baloratu dute egindako ikerketek; erakutsi dute ez daukagula maskulinizatu beharrik eurek bezala lehiazteko, baizik eta guretik egin behar ditugula ekarpenak. Frogatuta gelditu da taldean eraginkorrerako emakume-lidertzak abantailak dakartzala.

Ez da sistema matriarkatua izango gurea, baina Euskal Herrian emakumeek beste leku batzuetan baino botere handiagoa eduki duten irudipena daukat, baina hala ere, maskulinitatea babesten duen guztiarekin hausteko ezina dagoela. Zer dago gure esku? Zein da horrekin hausteko bidea?

Ba gauza garrantzitsu gehienak gure esku daude, baina ez baleude bezala jokatzeko dugu, ikusezintasunetik, isilatasunetik, lan boluntario eta altruistatik, eta are, orain gutxira arte, eremu pribatutik. Horregatik, oso zaila da demostratzea zer ez litzatekeen mugituko emakumeek mugituko ez balute.

Gure esku dago pertsona gisa ahalduntzea, beharra sentituz gero taldean batzea indartsuago sentitzeko, eta eremu publikoetan lekua

egiteko elkarri laguntzea. Gure esku dago gure lana gutxiesten ez lagatzea. Emakumeak ahalduntzeko tresnak eta baliabideak behar ditugu, eta horretarako, elkartzen gaituzten loturak eta elkarlanerako bideak sendotu behar ditugu, ez gaitzaten har gutxiengo gogaikarritzat, baizik eta eredu imitagarritzat; eredu errespetagarritzat.

Bi generotan oinarritutako sistema honetan emakumeari ez ezik gizonetakoari ere lotzen zaizkio rol jakin batzuk. Beharbada horregatik, 'Denok gara genero sistemaren biktimak' babesten dute gero eta gehiagok. Zer diozu?

Hori da benetako aukera berdintasunerako oinarria; hori da denon onerako emakumeek zein gizonen babestu beharreko kontua. Gizonen ere hala ulertu behar dute, eta ez eskubideak galtzeko arriskutzat. Ez dezala inork gaur indarrean dauden estereotipoetara makurtu beharrik izan, ez dezala inork eman zaizkion roletara lotu beharrik izan. Gi-

zonak behartuta daude indartsuak izatera, adonetsuak izatera eta euren sentimenduak gordeztera. Gizarte patriarkatu honek denontzako du marka bat, eta horretara egokitu ezean, sufritzeraren kondanatuak gaude, ez delako hori gugandik espero dena.

Kasu beldurgarriak daude, gaur batzuen pribilegioa ematen duenak (Amatasuna emakumeen kontua izatea, erantzunkidetasuna lortu ez izana...) gizonetako gehienek pribilegioa izan daitekeelako. Baina bikotea banantzen denean eta eurek zenbait eskubide galtzen dituztenean bakarrik aldarrikatzen dute parekidetasuna gizonen, hor bai galtzen irtetzen direlako. Hori, baina, aurreko guztiaren ondorioz da, eta askotan,

egoera horretara iritsi arte arduratu edo molestatu ez dituen kontua izaten da. Gai mingarria da, eta horregatik, aipatu baino ez dut egin nahi, aldatu beharreko asko dagoelako, eta kasu honetan, bereziki, gizonen alde, sufrimendu handia dagoelako.

'Maitasun erromantikoen mitoak', 'Amodio hilgarriak' eta antzeko izenburuko tailerrak dinamizatzen jardun duzu. Ipuinetako maitasun eredia salatzen arazorik ez du gaur jendeak, baina oraindik ere, printzesak eta txapelidunak ditugu, zoriondutako neska-mutilen artean. Non dago arazoa?

Ondo errotutako desberdintasun handiko sisteman bizi gara, eta zaila egiten da gauzak aldatzea: testuetan, irudietan, abestietan, filmetan eta gainerako guztietan denok horren barneratuta ditugun rol nagusiak errepresentatzen jarraitzen dira, eta guk geuk egoki ikusi ez arren, hori da, oharkabea, gure ondorengoei transmititzen ari garena. Neskek printzipe urdinen zain jarraitzen dute, eta mutilek printzesa dotore eta esanekoen bila. Inork ez du onartzen gaur halakorik, baina gutxi dira sistema horren kontra egiten dutenak; gogoeta egin behar dugu horrek zer kalte dakartzan konturatzeko, handia delako kaltea: emakumeentzako izango dira zaintza lan guztiak (bikotekidea, semeak, adinekoak...) eta gizonen jarraituko dute galdu bide duten askatasunagatik penatzen ezkon-despedida eta abarretan, gutxien galtzen dutenak eurek izan arren.

Eta emango du gizonen kontra ari naizela, baina ez. Nerabeekin egin diren ikerketetan ondorioztatu dena esaten ari naiz, gezurra badi-rudi ere hori delako gure nerabeek esaten duena: mutilek aitortzen du-

“Printzipe urdinen zain jarraitzen dute neskek, eta mutilek printzesa dotore eta esanekoen bila”

te neska esanekoak nahi dituztela eta arrazoiak badaudela, beharra sentituz gero, jotzeko ere. Eta neskek, aldiz, aitortzen dute zenbait kasutan ulergarriak direla halako kontuak, jelsokorkeria horretarako bidea ematen duelako, eta jelsokorkeria, azken batean, maitasunaren adierazpena delako.

Erakunde, unibertsitate eta abarretan agertu da emakumea, eta orain, 'berdintasun ilusioak' harrapatuta gaituela salatzen dute batzuek. Arriskurik ikusten duzu feminismoaren aldeko borroka apaltzeko?

Bai, eta oso larria iruditzen zait gazte askok pentsatzea gaur daukagun aukera berdintasun hau betidanik izan dugula. Larria iruditzen zait gazte askok ez ulertzea sistema patriarkatu honek sortzen dituela emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta sufritu ez dutenek uste izatea salatzen ari garen hori fikzioa dela eta arrisku gabea dela. Gogor jarraitu behar dugu lanean, horren kontzientzia sortzeko eta kritikotasuna landuz aurrerapausoak emateko.

Ez da kontu berria tamalez, baina gaur denok asaldatzen gara genero indarkeria kasuen aurrean. Zer egin genezake, baina, horren agerikoak ez diren indarkeria kasuen kontra -besteak beste, edertasun ereduak sortutakoak-?

Indarkeria matxista sistema patriarkatuaren ondorio da. Hezi ditugun moduan hezita, emakumea euren jabetzako zerbaite dela ulertzen dute gizon askok, eta ez eurek bezala erabakitzeke eta desira izateko eskubidea duen pertsona dela. Balore batzuek eusten diote horri, bestela azkeneko urteotan gauza gehiago aldatu ahal izango ziren. Indarkeria saihesteko lan egin behar dugu mutil eta neskekin, sistema hau aldatzeko, eta biktimei laguntza eta babesa eskaintzeko neurri sendoak exijitu behar ditugu, eta infernu hori laga duten emakumeak gehiago ez biktimizatu. Indarkeriaren zikloa ondo ulertu behar dugu, oharkabean espiral horretan jausi eta gero irten ezinda dabilzan neska eta emakumeei laguntzeko. Uste baino zailagoa delako hortik irtetea. Desgastea eta ondorioak oso larriak dira, eta gehiago lagundu beharko genieke hain erraz kritikatu beharrean, egiten dugun mina handia delako. Gizarte inplikaturik, kontzientea eta integratzailea behar dugu.

"Gizonezkoak edonon daude". Eta emakumeak?

Ahal dugun lekuan. Mende gehiegi egin ditugu eremu pribatuan, ezkutuan, eta kostatu egiten da hori amaitzea, ez gaituztelako eremu publikoa okupatzeko hezi. Horregatik gehiago kostatzen zaigu horra iristea, eta iritsita ere, kosta egiten zaigu hor gaudela ikus gaitzaten; kostatu egiten da balora eta errespetu gaitzaten. *Kristalezko sabaia* esaten dugunean horretaz ari gara. Iristen da momentua uste duguna eskubide eta aukera berdinekin izan ditzakegula, baina ez da erreal, ustezko sabai horrekin topo egiten dugulako. Berez ez dago toperik, baina hala iruditzen zaigu, hala ikustarazten digute umetatik bete behar izan ditugun rolek. Umeak zaindu beharra amaitzen denean -ama batentzako inoiz amaitzen ez bada ere-, zaharrak zaintzeko ordua iristen da, eta gure ibilbide profesionalari uko egiten diogu; bitartean, eurek, gizonak, aukera dute formatzen jarraitzeko, lanaldiak malgutzeko, mailaz igotzeko eta behar duten beste eskaintzeko euren lanari. Eta emakume gehienentzat hori guztia bateraezina da. Are, lana eta familia uztartu ezinagatik, emakume asko errudun ere sentitzen dira, euren "betebeharrak" ez betetzeagatik gogor epaitzen dituelako gizarteak.

Elgoibarren Emakumeen Kontseilua sortu izanak zein onura ekarri dio herriari?

Oso garrantzitsua iruditzen zait herriko eragileak gutaz kezkatzea eta gurekin eta guretzat go-goeta egitea. Horregatik eskertzekoa iruditzen zait Elgoibarko herritarrek, politikariek, alor ezberdinetako profesionalak eta eragile sozialek euren denbora, energia eta esperientzia eskaintzea gai honi; euren denbora eskaintzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borrokan eragile aktibo izateari. Elgoibarren dauzkagun behar eta baliabideak aintzat hartuta, emakumearen ahaldunderako borroka bide egokia iruditzen zait.

Badator martxoaren 8a ere, eta oraindik emakumeek baztertuta segitzen dutela salatzeko baliatuko dute eguna emakume taldeek eta enparauek. Egun horretarako lelo bat eskatuko balizute, zein aukeratuko zenuke?

Etorkezina emakume izena du. Niretzako ezinbestekoa da lortutako guztiaren aitortza egitea, ahaztu gabe oraindik helmuga urruti daukagula eta egiteko asko daukagula.

AGENDA

Bihar, zapatua, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko da munduan, eta egun horren harira, hainbat ekintza antolatuta dituzte Elgoibarren eta Mendaron. Hemen duzue egitaraua:

- **ANTZERKIA:** Glu-Glu produktioak *La última oportunidad* antzezlan eskainiko du gaur, 20:30ean, Herriko Antzokian.
 - **ERAKUSKETA:** *Elgoibarko emakumeak eta artisautza* erakusketa zabalduko dute bihar, 32 emakumeren lanez, eta hilaren 15era arte egongo da ikusteko aukera. Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko dute 18:30etik 20:30era.
 - **IPUIN KONTALARIA:** Oihulari Klown taldeko Raquel Imaz ipuin kontalaria etorriko da Elgoibarko liburutegira, ipuinak kontatzera. Martxoaren 10ean izango da, 17:00etan, eta saioa 5 eta 6 urteko haurrei zuzenduta dago.
 - **ERAKUSKETA:** *Emakume mundialak* izenburuko erakusketa jarriko dute martxoaren 5ean, Gaztelekuan. Martxoaren 8ari buruzko informazioa jasoko dute, eta historian zehar egon diren eta gaur egun dauden emakume "esanguratsuen" informazioa jarriko dute, tartean emakume elgoibartarra.
 - **EMAKUMEEN BAZKARIA:** Bihar izango da, Sigma jatetxean. Haizea elkarteak antolatu du.
 - **ZINE FORUMA:** *Silkwood* filma ikusi eta komentatuko dute, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Haizea elkarteak antolatu du eta Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. 21:30ean batuko dira kaferako, eta 22:00etan hasiko da zine emanaldia.
 - **ELKARREARATZEA:** Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak deituta, elkarrearatzea egingo dute bihar, 13:00etan, Kalegoen plazan.
 - **JOLASAK ETA ZINE EMANALDIA:** Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira jolasak egingo dira bihar, Mendaron, Goñati frontoian, 16:30etik aurrera. Mendaroko Udalak, gaztelekuak eta ludotekak elkarlanean antolatu dituzte jolasak.
- Domekan, hilaren 9an, berriz, *Quiero ser como Beckham* filma eskainiko dute Mendaroko San Agustin kulturgunean, 18:00etatik aurrera

Erretratu zaharra



1964

Aste honetako erretratu zaharra Jabbier Arriolak ekarri du BARRENERA. 1964an ateratako argazkia da, Mendaroko Plaza auzoan. Aingeru Goarda egunaren harira ospatzen dituzte auzoko jaiak, eta egun horretan atera zuten erretratua. Martxoaren 1a izaten da Aingeru Goarda eguna, eta aurten ere jaiak ospatu dituzte, ermita inguruan.

Goian: Simon Gurrutxaga (†), Boni Diez (†), Felix Arrizabalaga eta Anjel Gurrutxaga.

Behean: Silverio Txurruka, Roberto Areitio, Juanito Gurrutxaga eta Tomas Ronda.



ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENERen argitaratzeko
erretratu zaharrak
baldin badituzu,
eskertuko genizuke
gure erredakziora ekartzea.
Nafarroa Plaza 2, behea.
943 744 112 (Ainhua)

B

BARREN

ARRETA GABEZIAK ILUNDUTAKO EGUNEROKOA

Idoia Uruñuelak 20 urte ditu, eta orain dela hiruzpalau urte diagnostikatu zioten Arreta Gabezia eta Hiperaktivitate Nahasmena (AGHN). Haur eta nerabeen psikiatrian adituek diotenez, haurren %5ek jasaten dute gaitz hori, baina oso gutxi daude diagnostikaturik, eta azkenaldian gero eta ezagunagoa den arren, oraindik ere gaixotasun ezezaguna da askorentzat. Hori dela-eta, sinadura bilketa kanpaina hasi dute kaltetuek. Besteak beste, gaixotasun honek egutegian egun ofizial bat izan dezan eskatzen dute. Irene Barruetaña eta Idoia Uruñuela ama-alabek kontatu digute zer den gaixotasun honekin bizitzea.

Ainhoa Andonegi

Haur bihurria eta geldik egoten ez dakien horietakoa izan da beti Idoia Uruñuela. Gurasoekin eta aitona-amonekin bizi da, eta ondo gogoan dauka Irenek txiki-txikitatik alabaren gainean egon behar izaten zuela norbaitek: “Minutu bakar batez ere ezin genuen bakarrik utzi”. Eskolan ere, Lehen Hezkuntzan hasi eta berehala, irakasleak atentzioa deitzen zion. Arreta galtzen zuen, eta irakasleak esandakoa betetzeko zailtasunak zituen: “Zuhaitzen hostoei begira pasatzen nuen sari ordu guztia”, gogoratu du Idoiak. Gela guztia hankaz gora jartzen zuela esaten zion irakasle batek, eta “baztertu” egiten zuen. 6 urte zituenetik “diskriminatuta” egon da Idoia. Ikastetxez aldatu zuten, horrek ume batentzat izan dezakeen eragina kontuan hartuta, baina ikastetxe berrian ere arazoak zituen. Hala ere, ikasgai gehienak gainditzen zituen Idoiak, izan ere, adimen oso handiko pertsona delako. Adimena neurtzeko azterketa egin diote, eta 122ko koefizientea dauka (130etik gora supergaitua kontsideratzen da). DBHra iritsi zenean hasi ziren Idoiaren notak okertzen. Ordu asko ematen zituen ikasten eta etxeko lanak egiten, baina emaitzak ez ziren onak. Irakasleek alfer bat zela esaten zioten, eta gehiago saiatu behar zuela, baina Idoiak ahal zuen guztia eta gehiago egiten zuen. Egoera horrek inpotentzia eta frustrazio handiak eragitzen zizkion Idoiari, eta baita etxekoei ere. Antzietate egoerak gero eta sarriago errepikatzen ziren, eta bere burua zauritzen zuen Idoiak, hormaren kontra kolpeak emanez. Anbulategian lasaigarriak ematen zizkieten, lasai egoteko. “Zoratzeko moduko egoerak” bizi izan dituzte etxean.

12 bat urte zituenean psikologoarengana joaten hasi ziren, eta hark pedagogo bat behar zuela esan zion, ikasketekin lagunduko zion pertsona bat, hain zuzen ere. Hala ere, DBH 4. maila errepikatu egin zuen, eta pedagogoak hasi zen susmatzen Idoiak arazo “larriagoa” zuela.



Irene eta Idoia ama-alabak.

Etxean ere ikusten zuten Idoia saiatzen zela, ahalegin guztiak egiten zituela, baina azterketak ez zituela gainditzen. Literaturan oso ona da Idoia, eta Eibarko Narruzko zezen literatur lehiaketa irabazi zuen, bai euskaraz eta baita gaztelaraz ere, baina lan berberarekin eskolan ez zuen ikasgaia gainditu, akats ortografiko asko zituelako. “Pozaren ostean, beti tristura” iristen zitzairen eta egoera gero eta zailagoa zen. Hala ere, Bigarren Hezkuntza gainditu eta Batxilergora joan zen Idoia, irakasleek “ez zuela balio” esaten zioten arren. “Eskola porrotera” bideratzen zuten irakasleek, baina egoskor jarri zen Idoia, eta berak Batxilergo egin nahi zuela erabaki zuen, handik Kazetaritza ikastera joateko. Hori zen bere ametsa.

Batxilergo ikasten hasi zenean hasi ziren estreinakoz arreta gabeziaren nahasmenari buruzko kontuak entzuten. Institutuko orientatzaileak eta pedagogoak igarri zioten Idoiari arreta gabeziaren nahasmena zeukala. Psikiatrarangana jo zuten orduan, eta hark eginiko proba batzuen ostean diagnostikatu zioten Idoiari Arreta Gabezia eta Hiperaktivitatearen Nahasmena. 17 urte zituen ordurako, “beranduegi zen”. Tratamendua jarri zioten, eta hobekuntzak igarri zituen Idoiak, baina gora-behera handiak izaten ditu oraindik ere. Idoiaren gorputzak ez du laktosa onartzen, eta laktosarik gabeko medikamentuak aurkitzeko zailtasunak dituzte. Hori dela eta, ahal duten tratamendua ematen diote, eta ez benetan hartu beharko lukeena.

Dena dela, Idoiaren bizi-kalitatea hobetu egin da tratamenduari esker: gidabaimena atera du, Selektibitate azterketan 7,5 emaitza atera

GAIXOTASUN ASMATUA

Alemaniaiko Der Spiegel agerkariak argitaratutakoaren arabera, Leon Eisenberg psikiatra estatubatuarrek hil baino zazpi hilabete lehenago, 2009an, aitortu zuen pilulak saltzeko asmatu zuen gaixotasuna zela AGHN. Sendagileak 30eko hamarkadan hasi ziren ume urduriak ziruditenen ezaugarriak aztertzen, eta 60ko hamarkadan AGHN gaixotasuna genetikoa zela demostratu zuen Eisenberg-ek, ikerketa baten ondorioz. Era honetako baieztapenek min handia egiten diete Idoia bezalako pertsoneri. Jende askok esaten dio ez daukala ezer eta dena asmatu egiten duela eskolatik medikuarengana joateko edo atentzioa deitzeko, eta hori “oso gogorra” egiten zaio. Irenak esan duenez, 1800. urte inguruan hasi ziren gaitz honi buruzko lehenengo ikerketak, eta Eisenberg-ek esandako hori guztia “gezurra” dela ziurtatu du. AGHNri buruzko elkarteek demostratu dute psikiatra honek ez zuela gaixotasuna deskubritu, eta hori guztia asmakizun bat izan dela. Hala ere, mota honetako informazioak ez diela batere laguntzen adierazi du, eta sendagile askoren ahotik entzun behar izan omen du bere alabak ez daukala ezer; gaizki hezita dagoela eta alaba bakarra izaterakoan gehiegi mimatu dutela leporatu izan diote.

Gaixotasun genetikoa

AGHN izatearen arrazoen %77 genetikoa direla diote adituek, eta Idoiaren kasua ere genetikoa izan daitekeela uste du bere amak. Etxean beste inork ez dauka gaixotasuna diagnostikatuta, baina Irenak berak aitortzen du agendarik gabe ez dela inor. Egunero egin beharreko lan edota erosketa guztiak zehatz-mehatz apuntatzen ditu agendan, bestela ahaztu egiten zaizkiolako. Adinean aurrera joan ahala, gaixotasuna kontrolatzen ikasi duelakoan dago, eta moldatzen da atentzioa jari behar denean jartzeko, baina berak ere nahasmen hori bera izan duelakoan dago. Urtekin sintomak lausotu egiten dira, baina oraindik ez dute sendabiderik aurkitu.

SINADURA BILKETA

AGHN oraindik ezezaguna da askorentzat. Familia askok pairatzen dute, baina laguntza oso gutxi jasotzen dituzte gaixoeak eta horien senideek. Familientzat gastu handia eragiten du gaixotasunak, eta laguntzak lortu nahi dituzte. Gaixotasunaren egun ofiziala eskuratu nahi dute egutegian, besteak beste, gaixotasun honek medioetan oihartzun handiagoa izan dezan, eta gaixoeak bizitza apur bat errazagoa izan dezaten. Gaixotasuna errekonozitu eta tratamenduan gehiago inbertitzea nahi dute. Horrez gain, Hezkuntza Sistema AGHN duten pertsonentzako egokitzea ere eskatuko dute. Besteak beste, azterketa egiteko modu bereziak ezartzeko eta zentro bakoitzean pedagogo bat egoitea eskatzen dute.

zuen, eta Unibertsitatera joan zen Kazetaritza ikastera. “Pozez zoraztzen” iritsi zen Leioara, baina tamalez, hezkuntza sistema ez dago AGHN duten pertsonentzako egokituta. Ehun bat lagun zeuden gelan, eta oso zaila izaten zuen aurreneko ilaran lekua hartzeko. Horrez gain, eskolen ordutegiak egunero desberdinak ziren, eta Idoia moduko pertsonen orden bat jarraitu behar izaten dute. Ezin izan zuen bere ametsa bete, eta Kazetaritza ikasketak utzi egin behar izan zituen. “Hondamendia” izan zen hori Idoiarentzat, eta hondoa jota geratu zen, depresioaren atarian. Ordura arte eginiko aurrerapen guztiak bertan behera geratu ziren, eta etxeko guztientzat “kolpe gogorra” izan zen.

Baina ez zuten etsi. Idoiari beti gustatu izan zaizkio umeak, eta oso ondo konpontzen da gainera, umeekin. Haur Hezkuntzako goi mailako modulo bat egiten dihardu gaur egun Mekan, eta momentuz oso pozik dabil. Lehenengo ebaluaketan dena gainditu zuen, eta bigarrena ere ondo doa. Ordu asko galtzen ditu psikologoarengana eta medikuarengana joateko, eta horrek arazoak sortzen dizkio batzuetan, baina zailtasun guztien gainetik, beti aurrera begiratzen du Idoiak. Diziplina handia behar dute AGHN duten pertsonenak, eta oraindik orain pedagogo baten laguntza jasotzen du. Pedagogoak laguntzen dio gaur egun ere eguneroko plangintza agendan apuntatzen, eta zehatz-mehatz betetzen du guztia. Hala ere, sari ahazten zaizkio gauzak, edo gauzak galtzen ditu eta oso urduri jartzen da. Jatekoa ere izugarri zaindu behar du, eta txokolatea edo kafea bezalako pizgarriak “oso noizean

behin” jaten ditu. Kirola egitea ere oso garrantzitsua da, eta horrek izugarri laguntzen dio Idoiari estresa askatzen. Eskubaloian jokatzen zuen lehen, eta gaur egun arbitroa da. Bikotea ere badauka orain, eta babes handia eskaintzen dio. Badirudi poliki-poliki hasi direla zulo ilunean argia ikusten, baina oraindik ere inplutsibitatea kontrolatzea asko kostatzen zaio, eta energia asko gastatzen du “alferrikako gauzetan”. Idoiarentzat gauza onak, oso onak dira, eta txarrak, aldiz, oso txarrak, eta hori dela-eta, gorabehera handiak izaten ditu aldarlean.

Diagnostiko goiztiarra, irtenbidea

Urte gehiegi eman ditu Idoiak korrontearen kontra igerian. Ume bihurria, gaizki hezitakoa, alferra eta okerra zela entzuten eman zuen haurtzaroa eta nerabezaroren zati handi bat ere bai, AGHN diagnostikatu zioten arte. Hezkuntzan baztertu egin zuten, lagunartean ere bai, eta familiaren babesarekin geratzen zen. Berak eta bere familiak argi dute umetan diagnostikatu izan balioite gaixotasuna bizitza askoz errazagoa izango litzatekeela Idoiarentzat. “Kartzelak eta erreformatorioak nahasmen hau duten jende bezalako daude, gizarteak ez dituelako onartu”. AGHN duten ikasleei laguntzeko espezialitatea egin nahi du Idoiak, ume horiek berak pairatu duena ez dezaten bizi. Aurrerapausoak eman diren arren, oraindik ezjakintasun handia dago gai honen inguruan eta ondorengoei bizitza apur bat errazteko lan egin nahi du Idoiak.



INAUTERIAK ARGAZKITAN

Arg.: elgoibar.org

Bideoak eta argazki gehiago www.elgoiBARREN.net









Giro onean ospatu zituzten Aingeru Goardako jaiak Mendaron

Euriak atsedenaldia eman zuen, eta jende asko batu zen ermita inguruan

Martxoaren 1ean da Aingeru Goarda eguna, eta horren harira, jaiak ospatu zituzten joan zen asteburuan Mendaroko Plaza auzoan. Arbola sartu eta kanpai hotsekin hasi zituzten jaiak barixakuan, eta zapatuan bi meza berezi izan ziren Aingeru Goardako ermitan. Ekintza gehienak, baina, domekarako prestatu zituzten. Ermita inguruan batu ziren mendarorarrak, eta meza nagusiaren ostean, bertso saioa, musika eta herri kirolak izan ziren. Herri kiroletan bi talde egin zituzten: Jon Larrañaga eta Aratz Mugertza batetik, eta Igor Rey eta Ugaitz



Mugertza, bestetik. Jon Larrañaga eta Igor Rey mendarorrek lokotx batzen egin zuten, eta Ugaitz eta Aratz Mugertza mutrikuarrek trontzan eta aizkoran. Lan guztiak egin ostean, Jon Larrañaga eta Aratz Mugertza izan ziren garaile. Bertsotan Iker Zubeldia eta Andoni Egañak jardun zuten, eta gero, Aizpe elkartearen bazkaldu zuten guztiak.



‘La última oportunidad’ antzerkia taularatuko dute gaur, Herriko Antzokian

Glu-Glu antzerki taldeak *La última oportunidad* komedia garaikidea aurkeztuko du gaur, Elgoibarko Herriko Antzokian. Julian Iantzi eta Gurutze Beitia telebistako aurkezle ezagunak dira antzezlaneko protagonistak. Emakumeak ama izan nahi du lagunduriko ernalkuntza metodoaren bidez, eta gizona hazi emalea da. Pasioz, dibertsioz, sedukzioz, gaizki-ulertuz eta maitasunez beteriko komedia da. 20:30an hasiko da ikuskizuna. Sarrerak hamar euroan jarri dituzte salgai (ikasle eta gazte txartela dutenentzat, zazpi euroan).



‘Ali Baba eta 40 lapurrak’ antzerkia, domekan

Inoiz kontatu ez den bezala azalduko du Borobil Teatroak *Ali Baba eta 40 lapurrak* istorioa. Ali Baba, Persiako herri batean bizi den egur biltzaile txiroa da. Egurra biltzen basoan dabilen batean, zarata izugarri batek beldurtuko du. Zuhaitz baten adarren artean ezkutatatu eta 40 lapur ikusiko ditu mendian dagoen harkaitz erraldoi baten aurrean. Lapurren buruzagiak "ireki zaitez sesamo" esatearekin bat, kobazuloa ireki egingo da. Hortik aurrera kobazuloak ezkutatzen dituen sekretuak deskubritzen ahaleginduko da Ali Baba. Antzerkia 16:30ean izango da, Herriko Antzokian.

Igon Manzidor debarrak irabazi du Arnoateko Igoera

Estrenaikoz emakumezko batek hartu du parte lasterketan



Aingeru Goardako jaien barruan, Arnoateko Igoeraren laugarren ekinaldia jokatu zuten zapatuan Mendaron. Euriari aurre eginez, 22 lagun batu ziren irteeran, eta Igon Manzidor debarrak irabazi zuen proba, 21:34 denborarekin. 2012an ere berak irabazi zuen, eta orduan baino 21 segundo azkarrago egin du aurten ibilbidea. Hala ere, ezin izan du Josu Uriartek iaz jarritako errekorra (20:34) ondu.

Parte hartzaile kopurua aurreko edizioetako kopuruetan mantendu da aurten, baina izan da berikuntza bat, estreinakoz emakumezko batek parte hartu duelako. Izan ere, 2011n proba antolatzen hasi zirenetik hona, gizonezkoak izan dira beti parte hartzaileak. Maria Jose Castro debarrak hautsi du joera hori. Saillapeneko 19. postuan saillatu zen 30:37ko denborarekin.

Pilota Eguna martxoaren 15ean izango da

Kirol jarduerak sustatzeko egitasmoaren barruan, Elgoibar Ikastolak Pilota Eguna antolatu du 6tik 14 urtera arteko umeentzako. Martxoaren 15ean izango da, 10:30etik aurrera, Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Ikastolako frontoian egingo dute pilota jaialdia.

Urpekaritza bataioa, bihar, kiroldegian

Urpekaritza bataioa antolatu du Urbizik biharko. Nahi dutenek ur azpian izaten diren sentsazioak ezagutzeko aukera izango dute, besteak beste, ur azpian arnasa hartzea zer den probatzeko aukera eskainiko dute Urbiziko arduradunek. Olaizaga kiroldegiko igerilekuan egingo dute, 10:00etatik aurrera, eta 14 urtetik gorako edonork parte har dezake. Izena emateko honako telefono zenbakira deitu behar da: 607 530 461.

'Elgoibartarron tontorrak' egitasmoa jarri du martxan Morkaikok

Elgoibartarrak mendian ateratako argazkiak bilduko ditu Morkaikok, *Elgoibartarron Tontorrak* izeneko egitasmoaren barruan. Interesatuak *elgoibartarrontontorrak@gmail.com* helbidera bidali beharko dituzte argazkiak, izen-abizenak, data eta mendiaren izena zehaztuz. Hilean behin zozketak egingo dituzte jasotako argazki guztien artean. Jasotako argazkiak mendi taldeak Facebooken duen orrialdean jarriko dituzte ikusgai.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 0 – Arenas 1 (3. maila)

Elgoibar 3 – Gasteizko neskak 1 (Neskak)

Elgoibar 2 – Anaitasuna 0 (Neskak)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Lagunak 16 – Gazteleku 22 (3. mailako kad.)

Pala

Lagunak 25 – Beloki 10 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 2 – Inter 4 (2B)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 8

12:30 Elgoibar – Arrasate (Kad. A)

16:30 Elgoibar – Hondarribi (Inf.)

Domeka, 9

12:30 Elgoibar – Arrasate (Kad. A)

16:30 Elgoibar – Hondarribi (Inf.)

PILOTA

Barixakua, 7

22:00 Lagunak – Euskal Jolas (2. mailako nag.)

SASKIBALOIA (Mintxetan)

Zapatua, 8

16:00 Viento Sur – Arri BKL (Nag.)

ESKUBALOIA (Mintxetan)

Zapatua, 8

10:00 San Roke Elg. – Udarregi (Inf. neska)

11:15 Cometel Elg. – Egia bat (Inf. neska)

12:30 Deca Elg. – Algorri (Inf. mut.)

17:45 Beristain Elg. – Ereintza (Jub. mut.)

Domeka, 9

10:00 Pneumax Elg. – Pulpo (Kad. mut.)

11:30 Gabaz Elg. – Tolosa (Sen. mut.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia handia daukat. ☎ **675 358 119**
- Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeak garbitzeko. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketatarako. Esperientziaduna. ☎ **677 449 458**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo jardun osora. ☎ **632 395 829**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ **606 354 982**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ **602 391 899**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. Esperientzia handia. ☎ **616 457 254**
- Emakumea lan bila. ☎ **690 359 554**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ **631 102 186**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ **626 052 165**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **636 448 696**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **680 121 252**

- Emakumea umeak zaintzeko prest. Haur Hezkuntzako ikasketak ditut. ☎ **610 658 914**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **620 258 708**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. Gaez ere bai. ☎ **608 886 701**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **649 626 975**
- Emakumea eskaintzen da gaez lan egiteko. Esperientziaduna. ☎ **682 255 834**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Goizez. ☎ **617 571 210**
- Emakumea eskaintzen da astelehenetik ostiralera nagusiak zaintzeko. ☎ **699 820 299**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo ume zein nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Gaez ere lan egiteko prest. ☎ **943 254 087 / 672 966 528**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo ume zein nagusiak zaintzeko. Orduka, asteburuetan... Esperientziaduna. ☎ **626 914 904**
- Neska eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak zaintzeko. Geriatria laguntzaile ikasketekin. ☎ **646 931 162**

- Emakumea pisu bila. Elgoibar erdigunean, ahal dela. ☎ **636 581 194**

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Ikastola ondoan. ☎ **943 531 648 / 669 916 148**
- Bulegoa salgai, Elgoibar erdigunean. 25m2. komuna dauka. 36.000 euro. ☎ **677 731 061**

PARTIKULARRAK

- Ingeles klaseak ematen ditut etxez-etxe, maila guztietan. ☎ **680 319 002**
- Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bati klase partikularrak emateko pertsona behar da, bereziki, Gaztelania irakasgaia emateko. ☎ **628 413 290**
- Magisteriza ikasleak klase partikularrak ematen ditu. LH eta DBH1 eta 2. maila. ☎ **634 588 605**

KINTOAK

- 1964an jaio eta aurten 50 urte beteko dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute Sigma jatetxean, ekainaren 21ean. Interesatuak 60 euro sartu behar dituzte Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 20 0071129002. ☎ **639 925 597 / 648 191 042 / 608 555 489 / Elgoibar1964_quintos@yahoo.es**

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **602 391 899**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Klase partikularrak: **10€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Klase partikularrak: **8€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



- Duela astebete batzarra egin zen gure portalean. Nik ezin izan nuen joan, eta anaia joan zen nire partez. Ezin izan zuen, baina, bukaerara arte gelditu. Gaur akta jaso dut, eta aktan ez da ageri anaia egon zenik. Zer egin behar dut?


Aktan, bileran egon diren etxe-jabeen edo haiek ordezkatu dituztenen zerrrenda jaso behar da. Bileran amaitu aurretik alde egin behar izan duen etxe-jabeen bat egon bada, akta horretan noiz joan den zehaztu beharko da, bozkatu diren gaietan zer nolako lotura izan duen jakiteko.

Beraz, zure anaia bileran egon zen tartean gairen bat bozkatu baldin bazuten, bere botoa zein izan zen ere zehaztu beharko da aktan, besteenekin batera. Gainerako bozketetan parte hartu ez bazuen ere, aukera izan behar du jakiteko bozketa horietan zeintzuk parte hartu zuten eta zeinek zer bozkatu zuen.

Gomendioa: Gaizki idatzi diren aktak zuzentzeko, legeak aukera ematen du presidenteari edo administratzaileari gutun bat bidali eta zuzendu araztea eskatzeko. Zuzendutako akta hori etxe-jabe guztiei bidali beharko zaie gero, eta etxe-jabeen hurrengo batzarraren onespena jaso beharko du.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• June Fidalgo Arriolak 10 urte martxoaren 1ean. Zorionak, familiakoen partez.




• Zorionak, **Mikel**, gaur 5 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat, familiako guztion partez.




• Zorionak, **Laura**, astelehenean 5 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eguna! Muxuak, gurasoen, ahizpa Albarren eta Diego neba txikiaren partez.



• Zorionak, **Oinatz!**, Bihar 3 urte gure txapeldunak! Ondo pasa, eta muxu handi bat arreba Iraia eta etxeko gainerako guztien partez.



• Zorionak, **Maite!**, Bihar 3 kandelatxo itzaliko dituzu. Muxu handi bat, bereziki Beñat, Ane, Eneko eta Maialenen partez.



• Urtero pozez betetzen gaituzulako, familiakoen eta bereziki, asko maite zaituen anaia Anderren partez. Zorionak, **txapeldun!**



• Zorionak, **Maia**, gaur urte bat egin duzulako. Aittitta-amama eta osaben partez. Muxu bat.



• Lau, lau, lau, sardina bakalau! Zorionak, eta txokomarrubizko muxu bat, **pirata**.



• Zorionak, **pirata!** Noiz pasatu dira 5 urte?. Muxu handiena etxeko partez.



• Zorionak, **Mikel**, bihar 3 urte beteko dituzulako. Patxo bat, etxeko partez.



• Zorionak, **Miren**, igandean urteak beteko dituzulako eta Julen txikia mundura ekarzteagatik.



• Lau, lau, lau, sardina bakalau! Zorionak, **Martin**, martxoaren 11n 4 urte beteko dituzulako. Etxeko guztion partez.



Zoriondu ezazu **BARREN**en!

PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

4'50€

Argazki bikoitza:

7€

Hirukoitza:

9€

Hiru lagunetik gorako taldeak:

15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

3'50€

Argazki bikoitza:

6€

Hirukoitza:

8€

Hiru lagunetik gorako taldeak:

12€

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENEKO bulegora,

edo **barren@elgoibarkoizarra.com**

e-postara bidali.

Martxoak 8 Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela eta, horri buruzko **erakusketa** ikusi ahaliko da gaztelekuan datozen egunetan! Gaur barixakuko ekintza berezia egingo dugu



Martxoaren 7an **Aste Santuko programazioa** osatuko dugu guztion artean. Etor zaitez zure ekarpenak egitera!!

7 barixakua

Skitaldia

19:00 'Geurea ikurrina'

Ikurrinaren aldeko ekitaldia, Kalegoen plazan.

Erakusteka

18:30 Elgoibarko emakumeak eta artisautza

Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko dituzte ikusgai Elgoibarko emakumeek eginiko lanak, hilaren 15era arte.

Antzerkia

20:30 'La ultima oportunidad'

Glu-Glu taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

9 domeka

Antzerkia

16:30 'Ali Baba eta 40 lapurrak'

Borobil teatroak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

11 martitzena

Hitzaldia

19:00 'Giza eskubideak'

Indarkeriaren hausturak eta bizikidetzaren berreraikitzea hitzaldia eskainiko du Carlos Martin Beristainek. Ikastolan.

13 eguena

Gure esku dago

19:00 'Gazta zati bat'

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

14 barixakua

Bakarriketa

22:00 'A gustooooo'

Gorka Aginagalde eta Gurutze Beitia aktoreekin, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Sarrerak salgai 10 euroan, Morroskilon eta udaletxean.

ZINEA

«El lobo de Wall Street»

8, zapatua: 19:00/22:15* (VOS)

9, domeka: 19:00

10, astelehena: 21:30



«El lobo de Wall Street» Zuzendaria:

Martin Scorsese. AEB, 2013. Iraupena: 180 min. Generoa: Komedia dramatikoa. Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Jonah Hill, Matthew McConaughey, Kyle Chandler, Jean Dujardin. 80ko azken hamarkadan kokatzen da filma. Jordan Belfort 20 urte pasatxoko gazteak sekulako dirutza egin du Belfort burtsa agentziarekin. Wall Street-eko otsoa bezala ezagutuko dute. Dirua, emakumeak, drogak, boterea... dena dauka, baina ez da duen horrekin konformatuko.

«La gran belleza»

(Ongarri zinekluba)

13, eguena: 21:30



«La gran belleza» Zuzendaria: Paolo Sorrentino. Italia eta Frantzia, 2013.

Iraupena: 142 min. Generoa: Komedia dramatikoa. Aktoreak: Toni Servillo, Carlo Verdone, Sabrina Ferilli, Carlo Bucciroso, Iulia Forte. Babiloniako jauregi dotoreetan bizi den aristokrazia trama konplikatu batean murgilduko da. Jep Gambardella 65 urteko kazetari eta idazleak kanpotik gainbegiratuko ditu aristokraziako biztanle guztiak. 2014ko Oscar sarietan atzerriko pelikula onenaren saria jaso du.

BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
7 Garitaonandia 8 Zabaleta Goizez: Garitaonandia 9 Zabaleta 10 Barrenetxea 11 Ibañez 12 Garitaonandia 13 Etxeberria	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

**BADIRA ATE BAT IREKITZEAN
HASTEN DIREN PROIEKTUAK**

“**Enpresa, ekintzaile eta
ikerlari berritzaileen
esperientzietatik
ikasten dugu.**”

Nerea Txintxurreta,
Mekanikako Ingeniaritza,
3. maila.



PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI · MARTXOAK 15
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · MARTXOAK 20
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

DONOSTIALDEA · MARTXOAK 27
Osteguna, 17:30 / Orona Fundazioa

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · MARTXOAK 15
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · MARTXOAK 22
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MARTXOAK 29
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORATZA · APIRILAK 5
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · APIRILAK 5
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 22
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit
inoiz ez dela berandu
irribarre polit bat
edukitzeko

Ortodontzian
espezialistak

RPS 49/12



EIBAR
San Juan kalea, 7
943 82 18 85